


aurretik

BIZKAIKO TEKNOLOGI
BERRIKUNTZAREN INKESTA
2020



aurretik 2020

Azterketa hau egiteko oinarritzat hartu dira 2018ko Berrikuntza Teknologikoaren Inkestako datuak. Eustat – Estatistikaren Euskal Erakundeak eginiko inkesta horretan, hainbat aldagairen emaitzak jasotzen dira aribideko urterako eta aurreko bietarako (kasu honetan, 2016, 2017 eta 2018rako). Informazio hori ad-hoc eskatu dio Eustati Barrixe – Bizkaiko Berrikuntzaren Behatokiak.

2018. urteko Berrikuntza Inkesta egiteko, Osloko Eskuliburuaren 2018ko bertsio berria erabili da, eta horrek esan nahi du haustura bat dagoela orain arteko sailarekin, metodologia aldatu egin delako. Horregatik, argitaratu diren 2018ko datuak ezin dira alderatu aurreko urteetan argitaratutakoekin.

Osloko Eskuliburuaren 4. edizio honetan ez dira bereizten berrikuntza teknologikoa eta ez teknologikoa, eta beraizik aipatzen du berrikuntzak produktuan edota prozesuan egiten direla, berrikuntza hori teknologikoa izan ala ez.


Hala, hauek dira definizio berriak:

Inkestak dioen bezala, berrikuntza bat da produktu edo negozio-prozesu berri edo hobetu bat (edo bien konbinazio bat), establezimenduak lehenago zeuzkan produktu edo negozio-prozesuetatik oso desberdina dena eta merkatuan sartu dena edo establezimenduan inplementatu dena.

Produktuko berrikuntza da ondasun edo zerbitzu berri edo hobetu bat, enpresak lehenago eskaintzen zituen ondasun edo zerbitzuetatik oso desberdina dena eta merkatuan sartu dena.

Prozesuko berrikuntza da negozio-prozesu berri edo hobetu bat negozioaren funtzio batentzat edo gehiagorentzat, establezimenduak lehenago erabiltzen zuen prozesutik oso desberdina dena eta establezimenduan inplementatu dena.

BERRIKUNTZAN GASTATU DUTEN ESTABLEZIMENDUAK – 2018



2018KO GUZTIZKO GASTUA BIZKAIA

1.210.158.910€



503.817.361€

9.887.207€

696.454.343€

Berrikuntzarako Jarduerak

Jarduera berritzaileak dira enpresak finantza-, garapen- eta merkaturatze-arloetan garatu dituenak, eta berrikuntza bat sortzea helburu dutenak edo berrikuntza bat sortu dutenak.

10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen % 19,7k teknologi berrikuntzako jardueretan gastatu zuten 2018. urtean.

Bizkaiak berrikuntza teknologikoetan eginiko gastua 1.120,1 milioi eurokoa izan zen 2018an. Kopuru horretatik, 696 zerbitzuen sektorean eginiko gastuak izan ziren, 504 industrian eta 10 milioi eraikuntzan.

ONDOKO HAUETAN JARDUERA BERRITZAILEAK EGIN DITUZTEN ESTABLEZIMENDUAK




Produktu edo/eta Prozesuan Berritu Duten Establezimenduak

Produktu edota prozesuan berritu duten Bizkaiko enpresen portzentajea % 28,4koa izan zen 2018an.


Portzentaje hori handixeagoa da industria sektoreko enpresen kasuan, % 36raino iritsi delarik; eraikuntza sektorean ere % 31koa da eta, aldiz, zerbitzuen sektoreko portzentajea batez bestekoaren azpitik dago (% 26,3).

Establezimenduaren tamainak badu eragina produktu edota prozesuetan berritzeko gaitasunean, eta enpresa zenbat eta handiago izan, orduan eta gehiago berritzen du.

Bestalde, aipatzekoa da 2018an berrikuntzen % 16,9 bukatu gabe zeudela, eta bertan behera utzi direnen tasa %3,2an kokatu zela.



GARAPEN BIDEAN DAUDEN ETA BERTAN BEHERA UTZI DIREN BERRIKUNTZA JARDUERAK




Berrikuntzak Produktuan (Ondasunak edo Zerbitzuak)


10 langile edo gehiago dituzten Bizkaiko establezimenduen % 18k produktuan berritu du 2018an (produktuko berrikuntza da ondasun edo zerbitzu berri edo berritu bat, establezimenduak lehenago zeuzkan ondasun edo zerbitzuetatik oso desberdina dena eta merkatuan sartu dena).

Bizkaiko industria sektorea da horrelako berrikuntza gehien egin dituen (% 26,9); aldiz, beste bi sektoreak batez bestekoaren azpitik daude: zerbitzuena (% 16,2) eta eraikuntzarena (% 11,8).


Produktu/zerbitzuko berrikuntza gehienak establezimenduan bertan egiten dira (% 36,5) eta, neurri txikiagoan, establezimenduan bertan eta beste enpresa edo erakunde batzuekin lankidetzan (% 19,4), eta enpresako beste establezimendu batzuekin lankidetzan (% 28,4).




2016-2018 ALDIAN SARTUTAKO PRODUKTUKO BERRIKUNTZEK (ONDASUNAK EDO ZERBITZUAK) BIZKAIKO ESTABLEZIMENDUETAN IZAN DUTEN INPAKTU EKONOMIKOA.
Ondoko hauen ondoriozko negozio-zifraren % 2018an



2016-2018 ALDIAN ALDATU GABEKO EDO GUTXI ALDATUTAKO PRODUKTUAK (ONDASUNAK EDO ZERBITZUAK), GUZTIZ GARATUTAKOAK ETA BESTE BATZUEK PRODUZITUTAKOAK BARNE



2016-2018 ALDIAN SARTUTAKO PRODUKTU BERRIAK EDO NABARMEN HOBETUAK (ONDASUNAK EDO ZERBITZUAK), ENPRESENTZAT BAKARRIK NOBEDADEA IZAN DIRENAK.




2016-2018 ALDIAN SARTUTAKO PRODUKTU BERRIAK EDO NABARMEN HOBETUAK (ONDASUNAK EDO ZERBITZUAK), ENPRESENTZAT EZ EZE, MERKATUARENTZAT ERE NOBEDADEA IZAN DIRENAK.

Berrikuntzak Negozio Prozesuan

10 langile edo gehiago dituzten Bizkaiko establezimenduen % 26,3k, edozein dela ere beren produkzio-sektorea, prozesuan berritzen dute (prozesuko berrikuntza da negozio-prozesu berri edo berri bat sortzea negozioaren funtzio baterako edo gehiagotarako, establezimenduak lehenago zeukan prozesutik oso desberdina dena eta bertan inplementatu dena).

Sektoreka, negozio-prozesuko berrikuntza % 31,9koa da industrian, % 30ekoa eraikuntzan eta % 24,5ekoa zerbitzuen sektorean.

Prozesuetan berritzen duten establezimenduei baita ere galdetu zaie nork garatu dituen prozesu horiek. Kasu honetan, alternatiba erabilienak dira establezimenduan bertan garatutako berrikuntzak (% 34,3) eta establezimenduan bertan eta enpresako beste establezimendu batzuekin lankidetzan garatutakoak (% 28,4).



PROZESUKO BERRIKUNTZA MOTAK




Lankidetzan Eginiko Berrikuntza

Inkestako datuek diote lankidetzak tresna ona dela enpresetan jarduera berritzaileak garatzeko. Hala, Bizkaian berrikuntzak sortzen dituzten establezimenduen % 12,4k I+G-ko jardueren inguruko lankidetzak hitzarmenak izenpetu dituzte beste enpresa edo erakunde batzuekin 2016-2018 aldian.

Industria sektoreko establezimenduak dira berrikuntza jardueretarako lankidetzak hitzarmen gehien egiten dituztenak (% 18,8), eta atzetik dator eraikuntzaren sektorea (% 14,4). Bestalde, zerbitzuen sektoreko establezimenduek lankidetzak gutxiago garatu dute berrikuntzan epealdi horretan (% 10,6).


Enplegu-mailari erreparatuz gero, lankidetzak hitzarmenaren kopurua enpresen tamainaren arabera izaten da.




Berrikuntzaren Finantzazio Publikoa

Bizkaiko establezimendu berritzaileen % 46,9k finantzazko laguntza publikoa jaso zuten 2018an beren berrikuntza jardueretarako.

Eusko Jaurlaritza da laguntza gehien eman dituen administrazio publikoa (% 31,9), eta atzetik datoz Foru Aldundiak (% 18,7), Estatuko Administrazio Zentrala (% 15,6) eta EB (% 15,6).



JATORRIA



Berrikuntzarako Zailtasunak

Aztergai dugun inkestaren arabera, 2018. urtean Bizkaiko enpresen % 61,3k eragozpenen bat aurkitu du bere berrikuntza jardueran.

Berritzeko zailtasun handiena izan da beste lehentasun batzuk izatea enpresa barruan (% 43,8), eta ondoren alderdi ekonomikoekin zerikusia dutenak: kostu handiegiak (% 39,6), laguntza edo dirulaguntza publikoak eskuratzeko zailtasunak (% 33), eta finantzaketa eza enpresan edo enpresa talde barruan (% 28,4).





Badira berrikuntza eragozten duten beste faktore batzuk ere: ziurgabetasuna merkatuak enpresaren ideiei egingo dien harreraren inguruan (% 28,3) eta langile kualifikatu eza enpresa barruan (% 27,7).



Berrikuntza Babesteko Sistemak

2016-2018 urteen artean, Bizkaiko establezimendu berritzaileen % 11,9k patenteren bat eskatu du bere asmakizunak edo berrikuntzak babesteko. Industria sektorea izan da patente gehien eskatu duena (% 13,2), aldiz, zerbitzuen sektorean % 12,3koa da portzentaje hori, eta eraikuntzan % 3,9koa.

Bestelako babesei dagokienez, enpresa berritzaileen % 3,6k marrazki edo eredu industrialen bat erregistratu dute, % 11,3k markaren bat, % 2,1ek egile-eskubideak erreklamatu dituzte eta % 3,4k sekretu komertzialak erabili dituzte.



barrixe - Observatorio de la Innovación de Bizkaia, tu web de referencia sobre innovación.
Aquí encontrarás:

- Informes sobre la innovación en Bizkaia.
- Últimas Noticias y Tendencias.
- Ayudas y Subvenciones.


Señalar +

Una iniciativa de:



CÁMARABILBAO

DESTACADOS



Informes

Últimos Informes norabidea aurreTIK Patentes Comercio Exterior




Tendencias

Últimas Tendencias Digitalización Innovación social Inteligencia Artificial



Ayudas

Ayudas y Subvenciones Innovación Inversión Digitalización Internacionalización



Boletín

Suscríbete al boletín Últimos Boletines

E-Mail *

✓ Acepto las políticas descritas en nuestras políticas.

Enviar

De acuerdo con el **Reglamento (UE) 2018/678** relativo al tratamiento de datos personales, la información que recabamos en este formulario se utilizará para gestionar y garantizar el acceso de nuestros usuarios a los contenidos de nuestra web, así como para mejorar la experiencia de nuestros usuarios. Los datos que recabamos en este formulario se utilizarán para gestionar y garantizar el acceso de nuestros usuarios a los contenidos de nuestra web, así como para mejorar la experiencia de nuestros usuarios. Los datos que recabamos en este formulario se utilizarán para gestionar y garantizar el acceso de nuestros usuarios a los contenidos de nuestra web, así como para mejorar la experiencia de nuestros usuarios.



último Programa de Ayudas: Ciberseguridad Industrial, Teletrabajo y Digitalización.

SECCIONES

INFORMES

TENDENCIAS

AYUDAS

BOLETÍN

REDES SOCIALES

Twitter Facebook RSS

CONTACTO

barrixe

Observatorio de la Innovación de Bizkaia

Alameda de Recalde 10

48008 Bilbao, Vizcaya

Tel.: +34 944 70 00 00

info@barrixe.com

UNA INICIATIVA DE

Bizkaia

CÁMARABILBAO

© 2020 BARRIXE

Aviso Legal Política de cookies Política de Privacidad



bizkaiko
berrikuntza
behatokia

observatorio
de la innovación
de bizkaia

Jakizu zein den Bizkaiko enpresen berrikuntza-egoera Kotsultatu gure web berria

Aukera izango duzu gure sare sozialekin bat egiteko eta berrikuntzari buruzko argitalpen guztiak partekatzeko. Horrela, hurbilago jarraituko dituzu Barrixe-n berrikuntzari buruz argitaratzen diren albiste guztiak.



Harpidetu gure buletinera.



Eskuragarri dagoen txosten luzeago baten bertsio laburtua:

www.barrixe.com